

SERANTES KULTUR ARETOA AUTONOMIADUN ERAKUNDEAREN ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN SAIOAREN AKTA

2019ko MARTXOAREN 26ko SAIOA

Santurtziko udaletxearen batzorde aretoan arestian aipatutako eguneko hamaikak direnean, Autonomiadun Erakundearen Artezkaritza Kontseiluak ohiko bilera egin du, Presidente jaunak alde zuzenetik deituta. Bileran hurrengo hauek hartu dute parte:

Kontseiluburua: Danel Bringas Egilior jn.

Bertaratutako bokalak:

Itsazain Ortolatxipi Ibáñez jn. Eusko Abertzaleak Udal Taldea.

Cristina Senarriaga Rojo and. Eusko Abertzaleak Udal Taldea.

Iván López Arenas jn. Eusko Abertzaleak Udal Taldea.

Endika García Sáez jn. Bildu Udal Taldea.

Pedro Miguel Lucena Balda jn. Euskal Sozialistak Udal Taldea.

Luis Ángel Urdiales Villanueva jn. Popularren Udal taldea

Jonatan Sánchez Fernández jn. Atxiki gabeko zinegotzia.

Autonomiadun Erakundearen zuzendaria: Carlos Moran Arostegi jn.

Kontu hartzailea: José Miguel Paredes Cisneros jn.

Idazkari eskuordetua: José Fernando García Pañeda jn.

Kontseiluburu jaunak bilerari hasiera eman dio, eta deialdiaren zerrendako gaiak jorratzen hasi dira.

1. 2019ko URTARRILAREN 29ko SAIOAREN AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

2019ko urtarrilaren 29ko ohiko saioaren akta alde zuzenetik igorri denez, ez da une horretan irakurri.

Ez denez horrekin lotutako beste parte hartzerik izan, Kontseiluburu jaunak erabakiari buruzko bozketa egin du.

Bozketan Euskal Sozialistak taldeko kideak eta atxiki gabeko zinegotziak abstentzioa agertu dute. Horrela bada, Artezkaritza Kontseiluko kideek erabaki dute 2019ko urtarrilaren 29ko ohiko saioaren akta onartzea.

2. 2019ko EKITALDIARI DAGOKION ORDAINSARI IGOERA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Kontseiluburu jaunak autonomiadun erakundeak 2019ko ekitaldiari dagokion ordainsari igoeraren berri eman du eta alderdi azpimarragarrienak nabarmendu ditu, Artezkaritza Kontseiluko kideei alde zuzenetik helarazitako dokumentazioarekin bat etorritz.

Ordezkariek parte hartu ondoren, Kontseiluburu jaunak erabakiaren bozketa egin du.

Bozketa egin da eta hurrengo emaitza hau atera da: Kontseiluburuak eta Eusko Alderdi Jeltzale eta Euskal Sozialistak eta Popularrak udal taldeetako ordezkariek aldeko botoa eman dute (sei boto), Bildu udal taldeak, berriz, abstentzioa agertu du (boto bat) eta atxiki gabeko zinegotziak kontrako botoa eman du. Hortaz, Artezkaritza Kontseiluak erabaki du onartzea 2901ko ekitaldiari dagokion ordainsari igoera.

3. SERANTES KULTUR ARETOAREN JARDUNARI BURUZKO 2018ko OROITZA TXOSTENA AURKEZTEA

Kontseiluburu jaunak aipatutako oroitza-txostenaren berri eman du, Artezkaritza Kontseiluko kideei alde aurretik bidalitako dokumentazioarekin bat etorritz.

Parte hartzeko txandaren ostean, Artezkaritza Kontseilua gaiaren berri izan duela iritzi da.

4. ONARTZEA, HALA BADAGOKIE, 2019ko KARMENGO JAIETAKO PROGRAMAZIO ETA AURREKONTUEN IRIZPIDEAK.

Kontseiluburu jaunak 2019ko Karmengo jaietako programazio eta aurrekontuen irizpideen proposamenaren berri eman du, Artezkaritza Kontseiluko kideei alde aurretik bidalitako dokumentazioarekin bat etorritz.

Parte hartzeko txandaren ostean, Kontseiluburu jaunak erabakiaren bozketa egin du.

Bozketa egin da eta hurrengo emaitza hau atera da: Kontseiluburuak eta Eusko Alderdi Jeltzale eta Euskal Sozialistak eta Popularrak udal taldeetako ordezkariek aldeko botoa eman dute (sei boto), Bildu udal taldeak, berriz, abstentzioa agertu du (boto bat) eta atxiki gabeko zinegotziak kontrako botoa eman du. Horrela bada, Artezkaritza kontseiluak erabaki du 2019ko Karmengo Jaietako programazio eta gehieneko aurrekontuen irizpideak onartzea.

5. AUTONOMIADUN ERAKUNDEARI BURUZKO INFORMAZIOA

Kontseiluburu jaunak Autonomiadun Erakundearen jardueri buruzko zenbait konturen berri eman du.

6. GALDE-ESKEAK

Sánchez Fernández jaunak galdetu du Radio Nervionen egin den Pasi3n Vegaren kontzertuaren publizitateari buruz, ea irrati horrekin hitzarmenik egin den, iragarkia ordaindu den edo bestelakorik.

Era berean, udaletik kanpoko inork zine emanaldietan publizitatea emateko aukera erabili duen dagokion prezio publikoa ordainduta.

Bestalde, Sánchez Fernández jaunak adierazi du hamabi aldiz hautsi dela Gardentasun Legea, autonomiadun erakundearen gardentasun atarian ez delako informazioa behar bezala eguneratu, eta dagokion salaketa aurkeztu duela.

Azkenik, Sánchez Fernández jaunak azaldu du behar diren neurriak hartu beharko liratekela SKAn langile gehiago jartzeko, are gehiago Udaleko Lanpostuen Zerrendaren aldaketa onartzeaz dagoen honetan.

Presidente jaunak erantzun eman die egindako galderari.

Saioaren grabazio osoa honako esteka honetan dago:
<https://owncloud.santurtzi.eus/index.php/s/LqsOLcE6s2vsdGg>

Jorrazeko gai gehiagorik egon ez denez, Batzordeburu jaunak bilera amaitutzat eman du akta honen hasieran adierazi den egunean hamaikak eta berrogeita bost minutu direnean. Eta nik, organo honen Idazkari Eskuorde naizen honek hau guztiau ziurtatu egiten dut.

OE

**ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN
PRESIDENTEA**

